





EUSKALTZALEEN BILTZARRA *Gabriel Arestiren Bilbon*


2024, uztailaren 24a

BILBON DABIL GABRIEL ARESTI

Ibilaldian zehar irakurtzeko POEMAK.



Bilboko **aeK** h alderapeko



AURKEZPENA, ONGI ETORRIA:

Godalet-dantza

***Aitak Aizaroz bildots bat
eran zezan
Olenzaroz
aker bat
eran zezan.
Ordudanixek ezin gogora
dazaket
bildotsa,
akerraren adarrak gaberik.
Adar hoiek kiribilkatzen dira
bildotsaren buru inguruan
oinhaze egitekoz.
Zuhaitzaren adarrak hedatu nahi dute
gizonen buru gainean
babes emaitekotz.
Zertzuk dira arduragarriago:
Akerraren adarrak ote?
Zuhaitzaren adarrak ote?
Zer da guragarriago:
Bildotsa ote?
Gizona ote?***

1.- *"Nik hiru urte kunplitu nituenean, Espainian gerra zen. Ni orduan erdalduna ninzen. Ez beste arrazoirengatik ezpada nire gurasoek, naiz eta euskal apellidukoak izan, euskeraz ez zekitelako, erdal herri batean jaio nitzelako, Bilbaon, Bizkaiko hiriburu berrian.*

Gizonak asko sufricen du. Baina are gehiago sufricen du haurrak... Gerra batean bizi den haurrak. Naikoa alimenturik, naikoa elikaturarik ez duen haurrak... Eta hala genbilzan gu, haur flakoak, lur zihorkatu haretan; ikaca lapurcen genuen; garia eta ogia ohostucen genuen; tabakoa eta ardoa ebaxten genuen... Lortu genuen kultura apurra ere, aginka eta ukabilka hartu genituen liburu debekatuetatik"

2. Q poema, Harri eta Herri:

*Egia da Oteitzaren eskultura eztudala
nik konprenitzen,
baina ni eskolarik gabeko gizon bat naiz,
eta hori ezta harritzekoa.
Baina Jurgi Oteitzak nire poesia
konprenituko du
dudarik gabe,
gauza errazagorik ezpaita inoiz
gizonaren eskutikan
atera.
Jurgi Oteitzaren eskultura konpronitzeko
bista luzearen behar da,
baina nire poesia konpronitzeko
ezta behar
belarri zorrotzen,
agian
harek listoentzat eskulpitzen zuelako,
eta nik
tontoentzat
eskribitzen
dudalako.*

*Nire poesia oso merkea da,
herriaren ahotik hartu nuen
debalde,
eta debalde ematen diot
herriaren belarriari.*

3.

HIBAI ZABAL

Hibaiek

*erabaki bat harcen dute: Hemendik. Eta handik
ez dira mugituko.*

*Edo handik
mugitzen dira
geldi,*

*edo noizean behin, hasarraturik, azkar,
ixasora.*

*Ni ixaso bat banenduka, nora noan banenki,
hibaia
baninz...*

*Ai, ene tristema!
Nora eta nundik
noan
ez dakidana...!*

4.

BILBAOKO KALEAK

Bilbaoko kaleak,
gora eta behera,
errekatik mendira,
bazuk artszak,
gehienak zeharrek,
lurra estali da
exez eta gizonez,
gizonak leku batetik bestera
eramateko
makinez,
bizioz eta bekatuz,
karitatez eta kriminez,
plaza biribilak,
zumardi zabalak,
zuek
niri
gogora
ekarcen didazue
nire asmo zaharra,
behin egin nahi izan nuen
eta
inoiz egin ez dudana
Autonomia,
Adiskidetasuna,
Bakea,
Libertatea,

Foruak,
maitatu ditudan gauzak
Urkijo ministroa,
Gardoki kardinala,
Mazarredo almirantea,
Egia jenerala,
Arrikibar ekonomista,
higuindu ditudan gizonak,
kaleak,
kale mocak,
kaleak hemendik, hortik,
handik,
edonundik,

Gorbeia joateko gutizia sorcen zait barrenean,
bertan organizeko
euskeraren salbazioa,
baina hemen geracen naiz,
kale arte honetan,
milagro baten zai,
egunero bizarra kenceari ucteko
naikoa kurajerik
ez baitdut.”

.....

5.- SOUVENIR D'ESPAGNE POUR MESDEMOISELLES SOLANJE ET HELENA GEREZIAGA

*Hau da Bilbo, esan zuen gizonak.
Kapela zuria zeraman gizonak, eta
Hau da Bilbo, esan zuen. **Hau da
Pinturaren Museoa**, esan zenuten.
Peut-être, esan nuen, eztakit
Eznenkien. Ta zer? Eznaiz lotsatzen.
Zergatik burjesa egonen da
museo honetan izenez, laudorioz,
(Halako konteak eman zuen pintura hau),
pilotuaren eta marineruaren
izenak*

hilobi baten gainean eztaudenean?

Zer da hori? *Seinalatu zenuten leihotik.*

Deustuko Eskola. Jesuitena.

Ez, hangoa. Egurrezko etxe haek.

Ijitoak, esan nuen lotsaturik.

Hurrutian entzuten zen trumoia.

Grekoa. Goia.

6.-.- **ZORROTZAKO PORTUAN ALDARRIKA:**

Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.

Bien bitartean

Anton eta Gilen zeuden
zerrarekin

tronko hura erdibitzen.

Sokarekin...

Eztago kablerik...

Bestela...

Tira eta tira,
orain Anton,
gero Gilen,
eznaiz hilen,
Gilen.gilen

Hemen euskeraz
ta han erderaz.

Birao egiten zuten.

Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik,
berdin tratatzen baitu

erdalduna
eta
euskalduna.

Arbolaren neurriak hartu nituen.
Antiojuak bustitzen zitzaizkidan.
(Amak gauean pentsatu zuen erre kara
erori nintzela). Eta esan nuen:

Beti paratuko naiz
gizonaren alde.

Gilen.

Anton.

7.- EUSKAL HARRIA

*Zerutik erori gabeko
harria,
ongi labratua,
maisutrebe cit trebe eta habil batek
landua,
oinarri,
gilzarri,
zimentarria,
(adoracenzaitugu),
(ez zara eroriko),
(mila urte inguru da),
(euskaldunen artean),
arbolaren ixura emandako
harria,
ajola gabe landatu hindugun
itoginaren azpian,
eta ur-tantak
jan hau.
Hi,
arbola,*

euskal harria.

Milia Lasturko. (eresia, hileta-kanta, XV. mendekoa)

Zer ete da andra erdiaren saria?

Sagar errea, eta ardao gorria.

Alabaia, kontrario da Milia:

Azpian lur hotza gainean harria.

Lasturrera behar dozu, Milia.

Aita jaunak eresten dau elia,

Ama andreak apainketan hobia.

Hara behar dozu, Milia.

Jausi da zerurean harria,

Aurkitu dau Lasturren torre barria,

Edegi dio almeneari erdia.

Lasturrera bear dozu, Milia.

Arren, ene andra Milia Lasturko,

Peru Garziak egin deusku laburto:

Egin dau andra Marina Arrazolako.

Ezkon bekio, bere idea dauko.

Arren ene andra Milia Lasturko,

Mandatariak egin deust gaxtoto.

Zerurean jausi da habea,

Jo dau Lasturko torre gorea,

Eroan ditu hango jauna eta andrea,

Bata lehen, gero bestea.

Bidaldu dogu zeruetara karte:

Arren diguela gure andrea.

Mondragoeri hartu deusat gorroto,

Giputz andraok hartu ditu gaxtoto:

Iturriotz kalean andra Maria Baldako,

Arte kalean andra Oianda Gabiolako,

Errebalean andra Milia Lasturko

Nire aitaren etxea

defendituko dut.
Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea.
Galduko ditut
aziendak,
soloak,
pinudiak;
galduko ditut
korrituak,
errentak
interesak,
baina nire aitaren etxea
defendituko dut.

Harmak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
besorik gabe,
sorbaldarik gabe,
bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.

Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraunen du

zutik.

ARESTI KANTARI

1. Gora eta Gora beti

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi!
Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.
Gorantza doa agudo kapitala
eta Lapurdi beti dago apala,
aldrebesturik dago mundu zitala,
konformatzen ez bagara ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizi-modu normala
lurra lantzeko haitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen erreala.
Benetan da miserable euskaldunon jornala.

Munduan ezin bizi daiteke hala,
merkatuetan dena gora doala,
etxera eta zopa guztiz argala,
kriseiluen oiloa ez da postre formala.
Obrero eta nekazari leiala,
zuen ez da errenta liberala.
Diru zikinak putre motzak bezala
botatzen dizu gainera hortxe bere itzala.

Jabeek dute kontzientzi zabala,
kaskatu dute gure lurren azala,
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;
burruka garbian dago hori da printzipala.

2.- Emazurtz

Emazurtz jaio hintzen Lurraren erdira,
pobreen esperantzak benetan zer dira?

Ama urrikariak hala zinan erran,
esperantza guztiak hil zirela gerran.

Baina inoren zorrik ez dun ordainduko,
Heure etorkizunak ditun apainduko.

Sufritua giauden hamaika gosete,
ez genian sabela alimentuz bete;
beti gau eta egun gogorrik lanean
Jornal benetan pobre baten afanean.

Ezkondu hintzenean bost gona hituen,
bi bahituan jarri, bi saldu hintuen
soinean dunan hori diagon zaharra
berriak erosteko esperantza txarra.

Haurtxo bat sabelean beste bat besoan,
Senarra erbestean, Artoa auzoan
Hiru hilendi kentsu suaren ondoan
Beste argirik ez dun hiretzat munduan.

Hi haiz euskal herria, herri nekatua.
Inork ezagutzen du Hire bekatua?
Baina inoren zorrik ez dun ordainduko,
heure etorkizunak ditun apainduko.

3. Egia da

Egia da, egia da,
neuk ikusi dudalako.
Egia da, egia da,
porque lo he visto yo.
Egia da, egia da,
neuk ikusi dudalako.

Egia da, egia da,
parce que moi je lai vu.

Arratsateko oskorritik
goizeko oskorriraino
gauean ez da entzunen
ez da entzunen gauean
gauean ez da entzunen
sorgin musika baino.

Egia da, egia da,
neuk ikusi dudalako.
Egia da, egia da,
porque lo he visto yo.

Gezurra dirudi baina
sano ta fresko gaude.
Musika da denboraren
denboraren musika da
musika da denboraren
sekretuaren jabe.
Egia da, egia da,
neuk ikusi dudalako.
Egia da, egia da,
parce que moi je lai vu.

Gazte odola duenak
festa eta algara,
hamabost urtez oraindik
oraindik hamabost urtez
hamabost urtez oraindik
hasi berriak gara.
Egia da, egia da,
neuk ikusi dudalako
. Egia da, egia da,
parce que moi je l'ai vu.
Egia da, egia da,
neuk ikusi dudalako.
Egia da, egia da,
porque lo he visto yo.

4. Apur dezagun katea

Apur dezagun katea
kanta dezagun batea

hau da Fandango
Biba Berango!

Munduan beste asko lez
artaburua ozkolez

atzo aspertu nintzaden
maisuez eta eskolez.
Poeta naizenez gero
ez dut zerurik espero
bederatzi koplak ditut
lau zuhur eta bost ero.
Ilargiaren adarra
handik zintzilik abarrak
gogoangarriak dira
zure bi begi nabarrak.
Zerutik dator harria
nundikan berriz argia
gau ilun honetan dakust
zure aurpegi garbia.

Martxoko oilar gorria
inundik ez etorria
goseak arintzearren
judu batek igorria.
Goizaldean eguzkiak
printzak daduzka bustiak
oso merke saltzen dira
euskaldunaren ustiak.
Gure amonak esan dit
aitak ardoa edan dik
Joan zaitez tabernara
eta ekar zazu handik.
Euskararen asturua
ez da gauza segurua
askoz hobekiago
dabil munduan judua.
Eta hau hola ez bazan
sar dedila kalabazan
ipuin txit barregarriak
kontatu nituen plazan.

5. Egun da Santi Mamina

Egun da Santi Mamina
benetan egun samina.
Goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure arima (errepika)
Esanen dizut egia
hau ez da usategia;
erroi artean izan nintzaden
benetan ausartegia.
Itsas aldean izarra,
hari begira lizarra.
euskeraz salbo ikusi arte
eztut kenduko bizarra.
Kantatu zuen oilarrak,
argitzen dira belarrak
Ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskalerrak diotsa.
Solomo luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza.
Eman zaidazu bihotza eta
ken berriz nahigabeak.
Esan noiz garen izaneren gure
etorkizunen jabeak.

6. Bizkaiko aberatsak

Bizkaiko aberatsak dira diruzale,
txerri-erosle eta txorizo-saltzaile.
Dendaz bete dituzte Bilbon zazpi kale,
inoiz ez dute eman pausorik debalde,
burrukatzen baitute diruaren alde.

Arratiko gizona Bilbora doa maiz
Lemoako tranbian eta beti garaiz
bere artean dio umore txit alaiz
traje berri batekin gaur bestituko naiz
lehengo arlotea jantziko da galaiz.
Hura ikusi eta dendari guztiak
zaharrak geldi eta korrikan gaztiak
saldu nahi dizkiote makailu bustiak
gauerdiko izarrak eta eguzkiak
inor engainatzeko nolako trastiak.

Somera, Artekale, gero Tenderia,
han ikusi genuen mila komeria.
Tenderoaren grinak nork erremedia!
Gizonaren gainean han erori dira,
hanka kendu diote, ai, zer aberia!
Koituaren moduan joan da ihesi
hanka bakar batekin baliteke bizi.
Mundu honetan ez da batere justizi
zazpi kaleetan nahi traje bat erosi
eta oinetakoa bertan behar utzi.
Euskal baserritarrak dadukan pobrezia,
baino haundiagoa askoren grandeza.
Madrildik etorri den Korte Ingelesa,
bertan sartuko balitz euskaldun baldresa,
dirua gastatzeko manera erreza.

Ez zaitez bertan sartu, euskaldun maitia,
zabalik badaukazu bertako atia,
galduko duzu eta bigarren hankia
bai eta, bide batez, zure hankarte.
Euskaldun batentzako zer erremedia!

7. Nire poesia oso merkea da

Nire poesia oso merkea da
herriaren ahotik
hartu nuen debalde,
eta debalde ematen diot
herriaren belarriari.
Nik ere badut nire egia
eta bankero jaunarenak
bezainbat edo baino gehiago
balio du.
Munduko gauza guztiak gastatzen dira:
gastatzen da osasuna, maitasuna, desioa...
bizioa, gutizia, bizia,
eta erresen gastatzen da
munduko gauzarik iraukorrena,
gogorrena,
dirua.
Inork badio: nire etxean eztago bakerik
bila beza bakea auzoko etxean
edo munduko basterrik azkenean
baina etxean bakea balu,
eztezala gerrarik inun bila.

bakea eta etxea galdoko baitu
munduko basterretan.

8. Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen. (bis)
Eta zuek denok ur gazi bat atera zenuten
handik nekez. (bis)
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Orain zuen birtutez zuen indarrez. (bis)
Euskara itsaso urdin eta zabal bat izanen da
eta guria da. (bis)
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen. (bis)
Eta zuek denok ur gazi bat atera zenuten
handik nekez. (bis)
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?